

## BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5327

*EBAZPENA, 2014ko azaroaren 14koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoarentzako interesgarriak diren gaietan, 2014-2015 ikasturtean, atzerrian espezializazio-ikasketak egiteko beka berritzeko deialdia ebazten duena.*

Hezkuntza, Hizkuntza Política eta Kulturako sailburuak 2014ko urriaren 28an emandako Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoarentzako interesgarriak diren gaietako espezializazioikasketak egiteko beka berritzeko 2014-2015 ikasturterako deia egin zen.

Agindu horren 9. artikuluan ezartzen denez, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen berarizko ebazpen bakar baten bidez emango edo ukatuko dira aginduan aurreikusitako beka.

Horiek horrela, deialdira aurkeztutako berriztapen-eskariak ikusi ondoren, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean agertzen diren pertsonei beka berritzea, Euskal Autonomia Erkidegoarentzako interesgarriak diren gaietan atzerrian espezializazio-ikasketak egiteko 2014-2015 ikasturtean.

Bigarrena.– Beka horien diru-zenbatekoa, iraupena eta gainerako baldintzak, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera izango dira.

### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluari eta hurrengoari jarraituz, beraren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, Hezkuntza, Hizkuntza Política eta Kulturako sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetea da, ebazpen hau [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) egoitza elektronikokoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 14a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,  
ITZIAR ALCORTA IDIAQUEZ.

2014ko abenduaren 15a, astelehena

## I ERANSKINA

## PERTSONA ONURADUNEN ZERRENDA

Izen-abizenak	NANa	Matrikula (€)	Bidaiak (€)	Egonaldia (€)
Etxeberria Altuna, Erlantz	44130878L	6.000	1.000	16.344
Landa Vallejo, Ainhoa	72318911B	0	600	16.344
Mees Martinez, Oier Andreas	44157615F	284	300	21.792
Puente Ortiz, Naroa	72506334F	1.500	1.000	18.160
Murua García, Amaya Inmaculada	72754876B	261	300	16.827
Trivelli Moglia, Sofia Alejandra	47018246J	6.000	1.000	16.344
Loroño Leturiondo, María	78951719X	0	600	21.792